



Docentiaz

DOCENTIAZ

**IRAKASLEEN IRAKASKUNTZA
JARDUERAREN EBALUAZIO
PROGRAMA**

**Ikastegietako Kalitate Batzordeek
DOCENTIAZ programari buruz egindako
iritzi inkestan oinarritutako txostena**

2019 Azaroa

1. SARRERA

DOCENTIAZ, UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeke egungo eredua, ANECAk 2007an, ebaluazio-agentzia autonomikoekin koordinatuta, abian jarritako Unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeke laguntza-programan (DOCENTIA) oinarritua, ANECA/UNIBASQek egiaztatu du, 2019ko urtarrilaren 18an.

DOCENTIAZ programa ikasleengan zentratutako ikaskuntza-eredu kooperatibo eta dinamikoan oinarritzen da. Eredu propio, kooperatiboa, eleaniztuna eta inklusiboa da, eta ikasleak beren ikaskuntzaren jabe izatea eta modu integralean, malguan eta gizartearen beharretara egokituta prestatzea azpimarratzen du.

DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslan ebaluatzeke hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren zenbait alderdiri buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslan Ebaluatzeke Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako azken txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren bederatzigarren deialdia 2019ko otsailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutaraziz, eta, 2019ko irailean amaitu da. Ikastegiko Kalitate Batzordeak (hemendik aurrera IKB) DOCENTIAZ programan parte hartzen duten bere ikastegiko irakasle bakoitzaren txosten labur bat egin behar du. Txosten horiek 2018ko apirilaren 4 eta 30 egunak bitartean egin ziren, telematikoki.

IKBk egindako txostenean, ikastegiko irakasleen lanaren honako alderdi hauei buruzko informazioa emateko eskatzen zaie:

- I. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren plangintza eta garapena: irakasleak aurkeztutako ikaslearen gidan deskribatutako gaitasunak titulaziokoekin eta irakasgaiarako zehaztutakoekin bat datozen eta ikasketa planeko irakaskuntza modalitateen aurreikuspenari erantzuten dioten egiaztatu behar da.
- II. Emaitzak: irakasleak hautatutako irakasgaiaren arrakasta tasak aurkezten dira, baita *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta* ere, Kalitate Batzordeak datu horiek dagokien testuinguruan koka ditzan.
- III. Irakaskuntzaren koordinazioa: eskatzen da erantzutea ea ondo egin den, eta eragin positiboa izan duen arrakasta tasetan eta ikasleek duten irakasgaiari buruzko iritzian.

GGOBETETZE INKESTAREN LABURPENA

Jarraian, IKBetako kideei egindako galdetegi batetik lortutako emaitzak ageri dira. Galdetegia bide telematikotik erantzun zen, anonimoki, eta galdetegia bidali zitzaizen IKBetako 246 kideetatik 57k erantzun zuten; hau da, % 23k.

Galdetegiak 12 item ditu DOCENTIAZ programari buruzkoak, 10 galdera egitaratu eta itxiak dira, 5 baloretako eskala eskaliz galderaren enuntziatuarekin adostasun maila adierazteko, eta 2 galdera irekia.

Galdetegiko galdera bakoitzeko grafiko bat dago; bertan, eskalako balio bakoitzeko erantzun kopurua ikus daiteke. Horrez gain, batez bestekoa, konfiantza tartea (%95ean), laginaren tamaina eta, azkenik, desbiderapen tipikoa daude irudikatuta. "Jasotako erantzunak" I. eranskinean, bestalde, hautaturiko aukeretako erantzunen ehunekoak ageri dira. Atal irekia duen itemetan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat ere jasotzen da.

IKBk bete beharreko **lehenengo atalari** dagokionez, "**Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren Plangintza eta Garapena**", % 73,68 nahiko edo guztiz ados daude Batzordeak egiaztatu egin behar duela irakasleek aurkezturiko Ikasleen Gida ote datorren bat tituluan ezarritako ildoarekin, eskatutako gaiaren gaitasunekin, eta ikasketa-planen irakasteko modalitateei erantzuna ematen dien. % 15,79 ez daude oso edo batere ados IKBk atal honetan iritzia ematearekin. Bestalde, % 82,14k uste du atala erraz betetzekoa dela.

"Emaitzak" bigarren atalari dagokionez:

- % 52,63k uste dute IKBk aztertu egin behar dituela irakasleen arrakasta tasak eta taldeko/mailako batez-bestekoaren artean egon litezkeen aldeak; %29,82 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta %17,54 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. % 77,19ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.
- % 61,40ek uste dute IKBk baloratu egin behar dituela ikasleek betetako iritzi inkesten emaitzak, irakaslearen eta irakasgai, Titulazio baita Sailaren arteko aldeak aztertuz. % 24,56 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta % 14,04 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. Bestalde, % 87,72ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.


Hirugarren atalari dagokionez, "**Irakasleen garapen profesionala**", IKBk betetzen duen azken atala, % 63,16k uste du egokia dela IKBk atala betetzea, eta beste % 19,30ek, berriz, uste du ez duela zertan bete. Gainerako % 17,54 zalantzan daude. Bestalde, % 55,36entzat erraza da atal hori betetzea.

Azkenik, %81,63k Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak eskainitako arreta egokia izan dela uste du.

Emaitzei erreparatuta, hau ondoriozta daiteke: % 62,72 inguruk uste dute egokiak direla IKBak bere txostenean bete beharreko atalak, eta, %75,60ren ustez erraz bete daiteke atala. Bestalde, alde handia dago txosten bakoitza egiten emandako denboran, baina aurreko deialdietan emandako batez besteko denborari eutsi zaio: 1 ordu eta 25 minutu.


**Eranskina:
Jasotako erantzunak**

1. itema.- 1. Dimentsioa: egokia da Ikastegiko Kalitate Batzordeak irakaskuntza plangintzari buruzko txostena ematea baita ea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin bat datorren ala ez ere.




Azterketa teknikoa		Ondorioak
Batezbestekoa	4	%74ek" hau aukeratu zituen: Nahikoa ados nago Erabat ados nago
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	57	Gutxien aukeratutako erantzuna "%5": Ez nago batere ados
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	

2. itema.- 1. Dimentsioa: dimentsio honetan egiten diren galderei erantzutea erraza izan da aplikatiboaren ingurunean, Ikaslearen Gida eta Irakaskuntza Gida eskuragarri daudenez gero.




Análisis técnico		Conclusiones destacadas
Batezbestekoa	4	%82k" aukeartu zituen: Nahikoa ados nago Erabat ados nago
Konfiantza tartea (95%)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	56	Gutxien aukeratutako erantzuna "%2": Ez nago batere ados
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	

3. ítema.- 2. Dimentsioa "Arrakasta tasak": egokia da Ikastegiko Kalitate Batzordeak atal honi buruzko txostena ematea.




Azterketa teknikoa		Ondorioak
Batezbestekoa	3	%53k" hau aukertu zituen: Erabat ados nago
Konfiantza tarte (95%)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	57	Nahiko ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako erantzuna "9%":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

4. ítema.- 2. Dimentsioa "Arrakasta Tasak": atal hau betetzea erraza izan da arrakasta tasak, aplikatiboaren ingurunean, eskuragarri daudenez gero.




Azterketa tekniko		Ondoriak
Batezbestekoa	4	%77k" hau aukeratu zituen: Nahiko ados nago
Konfiantza tarte (95%)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	57	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	"Ez nago batere ados" aukeratu zuenik ez dago
Errore estandarra	0	

5. itema.- 2. Dimentsioa "Ikasleentzako Iritzi Inkestan jasotako emaitzak": egokia da Ikastegiko Kalitate Batzordeak atal honi buruzko txostena ematea.




Azterketa teknikoak		Ondoriak
Batezbestekoa	4	"%61ek" hau aukeratu zituen:
Konfiantza tarteak (% 95)	[3 - 4]	Nahiko adoz nago
Laginaren tamaina	57	Erabat adoz nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako erantzuna "%9":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

6. itema.- 2. Dimentsioa "Ikasleentzako Iritzi Inkestan jasotako emaitzak": atal hau betetzea erraza izan da ikasleek duten iritzia, aplikazioaren ingurunean, eskuragarri dagoenez gero.




Azterketa teknikoak		Ondorioak
Batezbestekoa	4	"%88k" hau aukeratu zituen:
Konfiantza tarteak (% 95)	[4 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	57	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	"Ez nago ados" aukeratu zuenik ez dago
Errore estandarra	0	

7. itema.- 3. Dimentsioa "Irakaskuntzaren koordinazioa": Ikastegiko Kalitate Batzordeak betetzea egokia da.



zterketa teknikoa		Ondoriak
Batezbestekoa	4	"%63k" aukeratu zituen: Erabat ados nago Nahiko ados nago
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	57	Gutxien aukeratutako erantzuna "%7": Ez nago ados
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	

8. itema.- 3. Dimentsioa "Irakaskuntzaren koordinazioa": atal hau betetzea erraza izan da.




Azterketa teknikoa		Ondoriak
Batezbestekoa	3	"%57k" aukeratu zituen: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	56	Gutxien aukeratutako erantzuna "%7": Ez nago batere ados
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	

9. itema.- Adierazi txosten bakoitza egiteko erabilitako batez besteko denbora (ordutan).

- 30 minutu baino gutxiago (10)
- 30 minutu (15)
- 45 minutu (3)
- 1 ordu (9)
- Ordu bat baino gehiago, baina 2 ordu baino gutxiago (2)
- 2 ordu (3)
- Bi ordu baino gehiago (4)

Kalkuluen arabera, batez beste, ordubete erabili da.

10. itema.- Irakaslana Ebaluatze Zerbizuko (IEZ) langileek behar bezala erantzun diete egindako galderari.



Azterketa teknikoa		Ondoriak
Batezbestekoa	4	"%82k" aukeratu zituen: Erabat ados nago Nahiko ados nago
Konfiantza tartea (% 95)	[34- 4]	
Laginaren tamaina	49	
Desbiderapen tipikoa	1	"Ez nago ados" aukeratu zuenik ez dago
Errore estandarra	0	

11. itema .-Adierazi txostena egitean izan duzun alderdi arazotsu bat

Nabarmentzera erantzunen artean, haren errepikatzeagatik edo edukiagatik, hurrengoak aipatzen dira:

1. **1. dimentsioa (Irakaskuntza-plangintza eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapena):** webguneko informazioa ikasleentzako gidarekin kontrastatzea; masterren irakaskuntza-gidak edukitzeko zailtasuna. **(5)**
2. **2. dimentsioa (arrakasta-tasak eta iritzi-inkestak):** balioesteko zailak, alderdi horiek behar bezala epaitzeko elementu objektiborik ez dutelako.
3. **3. dimentsioa (Irakaskuntza Koordinazioa):** balioestea zaila da, alderdi hori behar bezala epaitzeko elementu objektiborik ez dagoelako; informazioa ikastetxeko beste arduradun batzuekin kontrastatu behar da. **(8)**
4. **Aplikazioa** motela da eta ez da oso atsegina. **(4)**
5. **Bat ere ez.****(4)**
6. Informatu beharreko alderdien terminologia eta interpretazioa. **(4)**

12. itema.- Ikastegietako Kalitate Batzordeak egindako txostenaren edukia eguneratua izango balitz, zure iritzi, txostenak zer alderdiri buruz izan beharko luke?

1. Irakasgaia eta modulua koordinatzeko bileretan parte hartzea (koordinatzaileen txostena).
2. Aurkezten duen irakasgaia hobetzeko ekintzak sartzea
3. Dekano-Taldeak proposatutako jardueretan parte hartzea.
4. Ikastegiak antolatutako prestakuntza-ikastaro eta -jardueretara joatea.
5. Irakaskuntzan teknologia berriak erabiltzea (blogak, bideoak, twitter, entzuteko plataformak, etab.).

Hurrengo barra-grafikoak galderetako bakoitzak bildutako erantzunetako multzoaren Banaketa Ehunekoa laburtzen du

